



Maitena USABIAGA SARASUA
Sexologoa

Kontakatu kalakalari



Bada gure artean harremantzeko modu berezi eta kuriooa, geureak ez diren kontakizun eta istorioak besteek kontatzeko une paregabea.

Herritik entzuten diren zurrumurren eta txutxu-mutxuek askotan inguratzen gaituzte, besteek ustez dakigunak gure errealitatea sortzen du: «Hura Mirian da», «Separatua dagoena eta bere alabarekin bizi dena?», «Bai, neska, okindegikoaren alaba, sorgin horrena bai». Besteek ustez dakigunak gure harremanak baldintzatzen ditu; batzuetan gure onerako eta besteetan, gure kalterako.

Behin irakurri nuen txutxu-mutxuek gure espeziean izugarritzko garrantzia izan dutela eta daukatela. Munduan banatutako pertsonen artean lotura sortzeko balio dutela; nahiz eta ezezagunak izan, beraiei buruz jakiteak nolabait lotu egiten gaituela elkar. Lotura horrek kolektibo bat garela sentiarazten gaitu eta hainbat egoeratan kooperatzera eramán. Egia esan behar badizuet, ez nuen sekula horrela pentsatu eta egia esaten jarraituz, bere alde kaltegarrienak askotan kezkatu egiten nau. Ez naiz txutxu-mutxu zalea, ez ditut gustuko eta nahiz eta ulertu haien erabilera eta balioa dutela, uste dut aspaldi galdu genuela norabidea.

Kuriosoa da, oro har, halakoak kontatzen ditugunean, guretzat gauza negatiboak direnean soilik egiten dugula. Agian ez soilik, baina gehienetan esango nuke baietz. Hau da, besteak estropezu egiten duenean, huts egiten duenean, lotsagarria den zerbait agertzen denean... joaten gara korrika besteek kontatzera; «Ke fuerte, enteratu zara?». Kooperazioak baino, uste dut lehiak mugitzen gaituela. Besteak huts egiten duenean, norbera indar-

tzen dela. Besteek buruz hitz egiten dugula gutaz ez hitz egiteko, gure min eta hauskortasunaz ez mintzatzeko.

Guztiak gara zurrumurren subjektu eta objektu; batzuk gehiago eta besteak gutxiago. Eta hemen geratu nahi nuke. Normatik kanpo daudenak zaurgarriagoak dira besteen ahotan egoteko, epaiak jasotzeko, eta beraiei buruzko zurrumurrek besteen bizitzetara zentzua emateko. Desberdin bezala izendatzen ditugunak begiratuagoak (eta ez ikusiak) eta epaituagoak dira. Agian horretarako ere badira halakoak: berdinak-onak eta desberdinak-gaiztoak sailkatu eta mantentzeko. Ez dakit.

Benetan zer axola dizu hark harreman irekia duen ala ez? Neskak dituen gustuko, larrua jotzen duen, gal-tza estuak dituen, mozkortu egin den, ez-bitarra den, banatu egin den?

Zein zara zu esateko beste edozeini zer pentsatzen duzun bere bizitzeko moduez? Eta orain norbaitek erantzungo dit: «Bada, besteek egiten dutenak nigan ere eragina du eta hemen nagoen bitartean, hitz egin eta komentatzeko eskubidea dugu». Eskubidea, ahalmena, gogo... nahi duzun bezala esan. Nahi nuke nork bere buruari galdetzea ia zertarako ari gaitzaizkion esaten hori horri. Zertarako esango diodan norbaiti beste bati gertatu zaion zerbait, zertarako iritzia eman ia haren identitatea zer iruditzen zaizun, zertarako esan beste horren desira ez dagoela ondo.

Nahi nuke norberak bere buruaz gehiago hitz egitea, gertatzen zaigunaz, garenaz. Oso erraza da gainerakoei buruz hitz egin eta iritzia ematea eta barrura ez begiratzea. Iritziak merkeegi saltzen dira askotan eta gauza merkeak askotan garesti ateratzen dira. •



Besteek buruz hitz egiten dugu gutaz ez hitz egiteko. Anastasia MOLOTKOVA | GETTY IMAGES